Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1126

EBAZPENA, 2009ko otsailaren 11koa, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordearena, 2009ko ekitaldirako laguntzak emateko deialdia iragartzen duena, enpresak sustatzeko eta kanpoan ezartzeko ekintzetarako laguntzei buruzko Prointer Programa garatzen duen aginduan ezarritako esparruaren barruan.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko apirilaren 5eko Aginduak enpresak sustatu eta kanpoan ezartzeko ekintzetarako laguntzei buruzko Prointer Programa garatzen du (68. EHAA, 2005eko apirilaren 12koa). Agindu hori 2007ko ekainaren 1eko (2007ko ekainaren 4ko EHAA) beste agindu batek aldatu du.

Agindu horren 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bidezko da bertan finkaturiko laguntzetarako 2009ko ekitaldiko deialdia egitea eta horretarako eman behar diren arauak ematea.

Aurrekoa aintzat hartuta, eta aipatutako aginduaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honek honako xede hau dauka: enpresak sustatu eta kanpoan ezartzeko ekintzetarako laguntzei buruzko Prointer Programa garatzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren aginduan aurreikusitako laguntzen 2009ko ekitaldirako deialdia egitea, 2009ko ekitaldian egiten diren jardueretarako.

Xede horretara 5.067.920,57 euro bideratuko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2009rako Aurrekontu Orokorrak onesten dituen abenduaren 29ko 19/2008 Legean ezarritako aurrekontu-kredituaren arabera. Orobat, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) Prointer Programa hori finantzatzen laguntzen du.

Zenbateko hori aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-programa batzuk burutu ondoren agortu gabe geratzen diren aurrekontu-baliabideen arabera, eta betiere laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordeak ebazpena emango du aurreko guztiaren berri emateko.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

1126

RESOLUCIÓN de 11 de febrero de 2009, del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas, dentro del marco establecido por la Orden que desarrolla el Programa Prointer, de ayudas a las acciones de promoción y de implantación en el exterior, para el ejercicio 2009.

La Orden de 5 de abril de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, desarrolla el Programa Prointer, de ayudas a las acciones de promoción y de implantación en el exterior (BOPV n.º 68, de 12 de abril de 2005). Esta Orden ha sido modificada por otra de 1 de junio de 2007 (BOPV de 4 de junio de 2007).

De conformidad a lo establecido en el artículo 15 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el citado artículo 15 de la Orden de referencia,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria, para el ejercicio 2009, de las ayudas previstas en la Orden, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, por la que se desarrolla el Programa Prointer, de ayudas a las acciones de promoción y de implantación en el exterior, para las actividades que se realicen en el ejercicio 2009.

Para este fin se destinará un total de 5.067.920,57 euros, según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en la Ley 19/2008, de 29 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009. Asimismo, el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (Feder) contribuye a la financiación del presente Programa Prointer.

Este importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De esta circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial.

2. artikulua.– Betekizunak.

1.– Enpresak sustatu eta kanpoan ezartzeko ekintzetarako laguntzei buruzko Prointer Programa garatzen duen aginduan aurreikusitako laguntzak jaso ahal izateko, eskatzaileek erakunde onuradunen kategoria izan beharko dute, aipatutako aginduaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Gainera, eskabideak eta gainerako agiri osagarriak aurkeztu beharko dituzte, Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko ganberetan, Industria, Merkataritza eta Turismo lurralde bulegoetan, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) zehaztutako tokietan.

3.– Merkataritza-ezarpenak 2007ko ekainaren 30etik 2009ko irailaren 30era bitarte eratu behar dira, eratzeko fasean bildutako kostuak, egiturari eta sustapenari dagozkien kostuak eta beharrezkotzat jotzen diren gainerakoak estali ahal izateko.

4.– Prointer Programa arautzen duen aginduaren 18.5 artikuluan zehaztutakoari jarraiki, aldaketak aurkezteko azken eguna 2009ko irailaren 30a izango da.

5.– Eskabideak aurkezteko epea deialdirako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2009ko maiatzaren 15ean amaituko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 11.

Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordea,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.

Artículo 2.– Requisitos.

1.– Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden que desarrolla el Programa Prointer, de ayudas a las acciones de promoción y de implantación en el exterior, deberán ostentar la condición de entidad beneficiaria, de conformidad con lo establecido en el artículo 3 de la Orden de referencia.

2.– Asimismo, deberán presentar las solicitudes y demás documentación complementaria en las Cámaras de Comercio, Industria y Navegación de la Comunidad Autónoma del País Vasco o en las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo, bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

3.– Las implantaciones comerciales deberán haberse constituido entre el 30 de junio de 2007 y el 30 de septiembre del 2009, para poder cubrir los costes incluidos en la fase de constitución, los relativos a la estructura, promoción y otros que se entiendan necesarios.

4.– Atendiendo a lo especificado en el artículo 18.5 de la Orden reguladora del Programa Prointer, la fecha final de admisión de modificaciones será el 30 de septiembre del año 2009.

5.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente resolución de convocatoria, en el Boletín Oficial del País Vasco, y finalizará el día 15 de mayo de 2009.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de febrero de 2009.

El Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial,
JOSÉ IGNACIO TELLECHEA FERNÁNDEZ.